

AUZOLANA EUSKARAZKO KULTURGINTZAREN ARDATZ

Onar dezagun hiru direla kultur sistema bat osatzeko aukerak: herri-antolakuntza (auzolanekoa), instituzioak (normatiboa) eta merkatua (komertziala).

Hiru izan daitezke horietako baten aldekotasunerako aukerak ere: ideologikoak (pentsamendua), afektiboak (sentimenduak) eta operatiboak (praktikotasuna).

Gure ustez, euskaldunok auzolanean ardazturiko kulturgintza antolatu behar dugu, eta eraginkortasunari loturiko arrazoiengatik egin behar dugu horrela. Euskarazko kulturgintza bideragarri egitekotan, gaur-gaurkoz, auzolanean ardaztua behar du; herri-antolakuntza motore dela, lan instituzionala eta komertziala batuz.

Ez gabilta pentsamendua eta sentimenduak gutxiesten, noski, baina gure kezka euskararen geroratzea ziurtatuko eta euskaldunon elikagai sinbolikoak sortuko dituen kulturgintza antolatu eta bideratzea da.

Izaera bikoitza dugu euskaldunok: norbanako moduan mendebaldeko hiritarrak gara bete-betean; kultura moduan, berriz, mendebaldeko ereditik kanpo gaude, estaturik bako eta merkatu txikiko kultura izanik. Bi izaera horiek euren konplexutasun osoan kontuan hartu barik, ezingo dugu euskarazko kulturgintza eraginkorrik antolatu: sortu, gozatu,...; sustatu, hedatu,...; arautu, kontsumitu,...

Euskaldunon izaera bikoitz horrek suposatzen duen konplexutasun osoan, beraz, hiru kultur logikak landu behar ditugu, eraginkorrak izatekotan. Izan ere, gaur eta hemen, hiru logikak bizi-bizirik ditugu. Kantagintza da adibiderik garbiena: Kanta berberak balio dute herri-bazkari baten osteko ospakizun komunitariorako, instituzioek araturiko hezkuntza sistema baten baitako heziketa kulturalerako zein abeslari atzerritarrekin ondutako disko hirukoitz komertzial baterako. Objektuak (kantak) berberak dira; subjektuak (partehartzaileak) eta funtzio sozialak, berriz, diferenteak.

Hala, bada, euskarazko kulturgintza indartsu bat antolatzeko, euskaldunok hiru kultur logikak beharrezko ditugun ustea dugu guk; hain zuzen ere, eraginkortasunari begira hiru kultur logikak ikuspegi kritikoarekin landu behar ditugula deritzogulako egiten dugu auzolanaren aldeko apustua.

Sen horrek ekarri du euskara eta euskarazko kultura hogeita

batgarren menderaino, eta sen horrek indartsu dirauen eremuetan da gaur ere indartsu. Edozelan ere, egia da azken hamarkadetan indar handiagoa jarri dugula, batetik, diskurtso normatiboetan (logika instituzionala) eta, bestetik, lanketa komertzialetan (merkatuaren logika); eskubideak, legeak, profesionalizazioa, erakargarritasuna,...

Aztertu dezagun, beraz, ikuspegi kritiko batetik, hiru kultur logika horietako bakoitzaren eta euskaldunon arteko hartu-emanaz, labur-labur:

Merkatuaren logikan ardazteko, oso ahulak gara. Merkatuak zenbakiak dira, eta gure zenbakiak ematen dutena ematen dute: hedabide eta enpresa gutxi eta txikiak erauntsi globalaren menpe; star system murriztu eta umil bat mantentzeko lain. Nolanahi ere, ezin dugu euskaldunongan logika honek duen eragina gutxietsi, eta handinahikeria bezain kaltegarria gertatu dakiguke bazterzalekeria; gainera, artistak ere jarri behar du bere burua zenbakien ispiluan.

Logika instituzionalean ardazteko ere, ahulak gara. Intituzioek araez eta legez dakite, eta gure instituzioak beste nazio-kultura batzuen legeen menpeko dira. Arlo honetan zailtasun objektiboak (indarrean dagoen legedia eta elkarrekin bizi garen bi identitateak) eta zailtasun subjektiboak (euskararen estigmatizazioa eta euskaldunon konplexuak) sortu duten anabasa argitzea behar-beharrezkoa da, hasteko, gure baitarako diskurtso politiko ganorazko bat eraikitzeke eta jendarteari begirako dinamika adoretzu eta indargarri bati ekiteko. Hasi gaitzen zera barneratsetik: kultura ere politika da, eta modernoa/tradizionala, popularra/jasoa, lokala/unibertsala eta antzeko irizpideak botere-harremanetan oinarritzen dira. Aldi berean, ez dezagun inoiz ahaztu: eguneroko politikagintza eta eguneroko politikagintza bi esparru dira, eta kultura da desberdinen arteko zubiak egin eta biziguneak eraikitzeke modurik ahaltsuenetakoa. Ataka gaitza dugu honetan, baina gure baitan ideologikoki kontuak argi izateak bakarrik lagundu gaitzake jendartean abegitsu baina zorrotz behar egiten.

Auzolaneko logikan gara indartsu. Auzolanak jendeaz eta espazio publikoaz daki, eta 1/1eko eskala da eskuren daukaguna. Noski, harremanetaz ari gara, eta horrek umiltasun eta energia handia eskatzen ditu: beste norbanako zein taldeen berri jakin eta ezagutzea, helburuak konpartitzea, elkarrekin lan egiteko prestutasuna eta nahia... Bestelako balore-eskala batean ari gara, eta barneratu beharreko beste kontu bat baloratzeko modua bera da, hain zuzen ere: antolatzea ere sorkuntza da, eta dena delako ekitaldiraino ailegatzeko bidean lorturikoak ekitaldian bertan lorturikoak adina (edo gehiago) inporta du; zenbat jende edo talde jarri garen elkarlanean dugun, artista profesionalak eta amateurak

nahastu ditugun, antzokietara iristeaz gainera eskoletara, koadriletara edo etxeetara iritsi garen eta abar. Horrek guztiak, gainera, merkatuaren logikan agintzen eta administrazioaren logikan eragiten duen zenbakien balore-eskalan ere irabaztera garamatza: hasieratik gara gehiago, baina, gainera, kontua da sortzen duenak gozatu egiten duela eta gozatzeko duenak erakarri egiten duela.

Laburtuz, euskaldunok auzolanean ardatzuta instituzioen eta merkatuaren logikak barneratzen dituen kulturgintzaren alde egin behar dugulakoan gaude. Horrek esan nahi du merkatuan eta instituzioetan ere landu behar dela auzolana, autoritatea irabaziz eta begirunez jokatzuz.

1/1eko eskalak, definizioz, erantzunak asmatzera behartzen gaitu (tokiz toki, egituraz egitura eta arloz arlo) baina badira adibideak: Bertsozale Elkarteak (nazio mailako kultur proiektua); Gasteizko Gaztetxea/Halabedi (hizkuntzartekotasuna); Trapagarango lonjeroak (gazteak mobilizatu).

ADIBIDE BAT: DURANGOKO ZILAR ASTEA

Durangoko Plateruena kafe antzokia Durangon kultur eskaintza oro har aberastu eta bereziki euskarazko kulturgintza sustatzeko sortu zen 2004an, Berbaro euskara elkartearen bultzadaz eta 900 herritarrek diru-ekarpena eginda.

2009ko udan gogoeta egin genuen gure ibilbideaz, eta jatorrizko idearioa erreformulatuz, hiru ondorio nagusi atera genituen: programaziotik sorkuntzarako jauzia egitea; ikuskizunak eskaintzeaz gainera, parte hartzeko proposamenak egitea; Plateruena kultur proiektu oso moduan lantzea, gune izateaz haratago.

Bereziki euskarazko kulturgintzari dagokionez, auzolanaren aldeko apustu sendoa egin genuen: ekintzak Plateruena baino gehiagoren artean antolatu eta Plateruenean baino leku gehiagotan antolatu. Zilarrezkoak deitu genien ekintza mota horiei: Kantuaren Kantoia, Berbertan, DF bertsoZALE eskola Kantulagun eta Zilar Astea.

ZILAR ASTEA

Hiru oinarri:

- Gai bat ardatz duen aste tematikoa, euskaraz

- Durangaldeko nahiz EHko hainbat taldek eta gunek antolatua
- Hainbat adierazpide artistiko eta artistak batzea

ZILAR ASTEA 2010: JOSEBA SARRIONANDIA

Antolatzaileak: Plateruena, Berbaro, Karrika antzerki taldea, Literatura Eskola; Ibaizabal, Jesuitak, Maristak eta Institutua; San Agustin udal aretoa eta Udal Liburutegia.

- Literatur atelierra, batxilergoko eskoletan (Gotzon Barandiaran).
- Ikuskaria Plateruenean, goizez ikasleentzat iluntzean zabala (Karrika, Rafa Rueda, Gotzon barandiaran, Eñaut Elorriata, Unai Iturriaga, Miren Amuriza)
- Aulki Hutsa antzezlan, San Agustin udal aretoan (Le Petite Théâtre de Pain.
- Literatur Eskola, Joseba Sarrionaindiaren ipuingintzaz, Udal Liburutegian (Xabier Mendiguren).
- Ibilbide literarioa, Joseba Sarrionandiaren umetako akorduei segika (Alberto Errasti, Peru Madalena, Josu Zabala)

ZILAR ASTEA 2011: 80KO HAMARKADA DURANGON

Antolatzaileak: aurrekoetaz gainera, Kriskitin dantza taldea, Txistu y Tamboliñ literatur taldea, Bideografik ekoiztetxea.

- Galdu Arte nobelaren lanketa, batxilergoko eskoletan (Juan Luis Zabala).
- Egizu Zeuk film labur lehiaketa, batxilergoko ikasleentzat.
- Mahai-ingurua, Plateruenean (Mario Zubiaga, Idoia Eizmendi, Josu Zabala + Jonan Hernandez kazetaria).
- Ikuskaria Pateruenean (Txistu y Tamboliñ, Karrika, Kriskitin, Felix Arkarazo, Ander Erzilla jazz trioa,...).
- Dokumentala San Agustin udal aretoan (Unai Iturriaga eta Bideografik).
- Literatura Eskola, Galdu Arte nobelaz, Udal Liburutegian (Juan Luis Zabala)

ZER DAKARKE AUZOLANAK?

- Euskarazko kulturaren eragileak (sortzaileak eta antolatzaileak) eta hartzaileak identifikatzea.
- Elkar ezagutzea: Kulturaren zein eremutan eta zein baldintzatan lan egiten dugun elkarri azaltzea eta zein helburu ditugun jakinaraztea
- Euskarazko kulturaren egoerari buruzko irakurketak trukitzea.
- Herri mugimenduak, erakunde publikoak (politikariak) eta industrialki jarduten dutenak zilegitasun maila berean ezartzea.
- Erabakitze guneak zein izan behar diren adostea. Ondorioz, erabakitze guneetan parte hartzea handitzea.
- Norberaren lehentasunak gainontzekoen lehentasunekin parekatzea.
- Euskal kulturarentzat estrategikoa zer den adostasunez erabakitzea.
- Kultura politika eztabaidatu, adostu, onartu eta betearaztea.
- Unean uneko agintaritzak politikoak kateatuko ez duen sujeta politikoa bihurtzea.

Gure ustez, auzolana ulertzeko era honek herrietarako, hirietarako, herrialdeetarako zein Euskal Herri osorako balio du.

Berdin bildu beharko dugu sortzaileok, antolatzaileok eta hartzaileok Agurainen, Etxarrin, Heletan edo Bilbon.

2010eko azaroaren 24 eta 25ean, Kontseiluak "Euskararen unibertsoak pauso bat haratago" jardunaldiak antolatu zituen Iruñeako Planetariumean. Lehen egunean euskararen egungo egoeraren diagnostikoa aurkeztu zelarik, zenbait ondorio sano argigarri mahai-gaineratu zituen:

- Hizkuntz-politikak: Azken 25 urteotan Euskal Herri osoko instituzio publikoetatik bideratutako hizkuntza-politikek bere horretan badiraute, euskara ez da egundo normalizatuko.
- Sektoreen azterketa: Hezkuntzaren, Helduen euskalduntze-alfabetatzearen, lan-munduaren, hedabideen eta euskara elkarteen baldintzak aztertuta: Ez dago aldeko baldintza politikorik, beraz ez dago aldeko baldintza juridikorik ezta

ekonomikorik ere. Ostera, baldintza sozialak oso aldekoak dira. Euskarazko kulturgintzari buruzko azterketarik aurkeztu ez bazen ere, ondorioak berdintsuak direlakoan gaude. Ez dago euskarazko kulturgintzaren aldeko baldintza politikorik, ez juridikorik ez ekonomikorik, baina euskal herritarren gehiengoak euskarazko kulturaren aldeko jarrera du.

Halandaze, zelan lortu genezake baldintza politiko, ekonomiko eta juridikoak aldekoak izatea?

Babes soziala baldintza politiko bihurtuta. Eta hori lortzeko modu bakarra auzolana dela deritzogu.

Hizkuntza-politikak eta ondorioz kultura-politikak, euskalgintzak eta euskal kulturgintzan ari garenok eztabaidatu, adostu eta gauzatu behar ditugu. Ezin dugu kultura edota hizkuntza-politika lau urterik lau urtera instituzio publikoetan agintean daudenen gidaritzapean utzi. Atzo Kulturaren Euskal Plana zena gaur Kulturen Aldeko Herritartasun Kontratua da eta bihar Planaren Aldeko Herritartasun Kultura izango da edo auskalo beste zer. Bitartean azken 40 urteotan euskalgintzan eta euskarazko kulturgintzan lanean ari garen herri mugimenduok zein norbanakook ez dugu ezer erabakitzeke botere gunerik irabazi. Euskal herritarrak gure lanaren aldekoak badira ere, euskarari zein euskarazko kulturari baldintza politiko ekonomiko juridikorik bermatzen ez diotenek antolatutako foroetara joaten gara ekarpenak egitera.

Lau urtetik lau urtera instituzio publikoetan agintean daudenek proposatzen dituzten foroetan parte hartzeari utzi egin behar diogu. Foro horietako kide izanik, hizkuntza-politika zein kultura-politika gure esku ez daudela onartzen dugu, inoren gidaritza onartzen dugu.

Foro horien bultzatzaile diren instituzioetako agintariek eurek aitortzen badigute gure ekarpenak euren nahierara erabiliko dituztela, zergatik hartzen dugu parte morroi papera inposatzen diguten antzezlanetan?

Ez dezagun instituzio publikoen menpekoak diren Euskararen Aholku Batzorde eta enparauetan parte hartu, sortu dituzagun gure Euskararen Aholku batzordeak eta instituzio publikoek parte har dezatela gugaz batera, auzolanean. Non dago euskararen eta euskarazko kulturaren aldeko masa kritikoa ez bada euskalgintzan eta euskal kulturgintzan? Non daude euskararen eta euskarazko kulturaren aldeko militanteak ez bada euskalgintzan? Non biltzen gara euskara erabili eta euskarazko kultura kontsumitzen dugunok ez

bada euskalgintzaren eta euskal kulturgintzaren inguruan?

Euskal Herriko instituzio publikoetan agintean daudenentzat euskara eta euskarazko kultura ez dira lehentasunezko, euskalduntzea ez dago eragile horien helburuetan. Zergatik onartzen dugu euren gidaritza? Zergatik uzten dugu hizkuntza eta kultura politika euren esku? Zerk eragozten digu euskalgintzako kideoi presio sozio-politikoa nahikoa egingo duen subjektu politiko bilakatzea?

Euskalgintza eta euskal kulturgintza osotzen dugunok norberaren proiektua estrategikoena dela pentsatzeari utzi behar diogu eta euskararentzat eta euskarazko kulturarentzat estrategikoa zer den adostu behar dugu, auzolanean. Euskalgintza eta euskal kulturgintza osotzen dugunok, nor bere aldetik, gogoeta sasoian gaude. Berandu orduko bildu, gogoeta horiek trukatu, eztabaidatu eta ebatziak hartzen has gaitezke. Euskalgintza eta euskal kulturgintza osotzen dugunok euskararen eta euskarazko kulturaren aldeko subjektu politiko bilakatu gaitezke, instituzio publikoetan emango diren aginte aldaketak aldaketa, dagoena dagoela, datorrena datorrela, hizkuntza eta kultura politika geuk gidatuko dugula ulertarazi geniezaieke euskal herritarrei eta klase politikoari. Sinets dezagun horretarako gai garena, badugula nahikoa indar, auzolanean edozertarako gai garella, herritarrak alde ditugulako. Ostantzean, orain arte legez, erresistentzia lanetan iraungo dugu, nekaraziko gaituzte eta nekatuko gara. Idazleak frogatu ukaezinak bildu ditu: *"Euskararen iraupena erresistentzia luze eta miresgarri baten ondorioa izan da eta izango da. Gure klase politiko nagusiak albora bota du euskara, ez zaio interesatzen kultura egiteko eta unibertsaltasuna hedatzeko tresna bezala. Euskararen historia marjinazio baten historia da. Eta politikoki eragin beharko dute euskaldunek, nik ez dakit nola baina, marjinazio horretatik ateratzeko. Euskarak ez du aurrera egingo munduko idazlerik onenak, munduko kantaririk onenak eta munduko bertsolaririk onenak edukita."*

Euskalgintzan eta euskal kulturgintzan hamarkadetan egin dugun lan eskergak ematen digun zilegitasuna eta bermea aldarrikatu behar ditugu euskal herritarren gehiengoa jabetu dadin geu garella Euskal Herrian hizkuntza-politika zein kultura-politika gidatu behar dugunak.

AUZOLANAREN DEKALOGOA

- 1) Auzolana gizarte ikuspegi bat da; ez da slogan bat.
- 2) Auzolana herrigintza-helburuekin lotutako elkarlana da; ez edozein elkarlan mota.
- 3) Auzolana herrigintzarako antolaturiko pertsonak dira; helburu zehatzak bezain inportantea dira jendea eta funtzio soziala.
- 4) Auzolankide dira hasieratik buru-belarri dabilena zein ekintza jakin eta xume batean parte hartzen duena.
- 5) Auzolanak auzokoen lanerako baldintzak ezagutzera garamatza, eta beste kontzientzia maila bat ematen digu gainerakoen lanaz; aberastu egiten gaitu.
- 6) Auzolana talde-lana da; batzuetan eragiletza izan daitekeen moduan, beste batzuetan laguntzaile izatea izango da.
- 7) Auzolana horizontala da; pertsonatik pertsonara, talde edo elkarteen baitan zein herri-mugimendu, instituzio eta enpresa arloko eragileen artean.
- 8) Auzolana erabakiak adostea eta zereginak banatzea da, bakoitzari dagokion esparruaren arabera.
- 9) Auzolana prozesu bat eta ikasbide bat da; jarrera irekia eskatzen du helbururei eta emaitzei begira.

- 10) Auzolanak lana egitea esan nahi du, auzokoari begira geratu barik; eta bizipozez lan egitea.

Kredituak eta baimenak.

Egilea: [Gotzon Barandiaran](#) eta [Igor Elortza](#).

Data: 2011ko uztaila.

Baimena: Creative Commons [Aitortu-PartekatuBerdin 3.0](#)

Oharra: material hau interesa daukan edonoren esku jartzen da Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 3.0 lizentziarekin. Lizentzia honekin edukia kopiatu, banatu eta erakutsi ahal izango dituzu, ondorengo baldintzak beteaz:

- Edukiaren jatorrizko egilea aipatu behar duzu.
- Lanaren kopia zein banaketa askea da.
- Lan eratorriak, jatorrizko egiletza aitortzeaz gainera, baimen (lizentzia) berdina izan beharko du.